



HITZARMENA

ARRASATEKO UDALA ETA AED ELKARTEARENARTEKOA, HAINBAT EKINTZA ELKARLANEAN ANTOLATU ETA FINANTZATZEKO

Arrasaten, 2017/6/28an

BILERAN DIRA

Alde batetik, Eñaut Muxika Olasagasti, AED elkartearen lehendakaria, NA 72.573.788W duena, adinez
nagusia, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen izenean.

Eta, bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena,
horretarako behar bezala ahalmena dago eta.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri

LEGE TESTUINGURUA

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren
hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.
Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren
arabera, beraz, Euskal Herriko herri-agintek –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaldu eta zabaltzen
laguntzeko obligazioa dute.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetako buruzkoak, 7 artikuluan
zehazten du udalei izendatzen zaizkien eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta
jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazio planifikatzeko eskumena.

AZALPENAK

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak, sortu zentetik hona, hainbat kultura ekintza antolatu
dituela, gaur egun ere antolatzen jarraitzen duela eta Arrasateko herria dela ekintza horien guztien onuraduna.

AED elkartearen urtetik urtera indartzen joan dela eta haren kultura zerbitzuek gero eta eragin handiagoa
dutela, ezarpen eta onarpen sozial zabalak lortu dituzte eta.

Garrantzi handikoa deritzotela, batetik, AED elkarteak berak, irabazteko asmorik gabekoa izanik, egiten
duen lan eskerdari behar bezalako trramendua ematen jarraitzeari eta, bestetik, bide batez, geroa ziurtatu eta
sendotzeari ere.

Hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

Lehen. Hitzarmen honen helburua da AED elkarteak eta Arrasateko Udalak, elkarlanean eta AEDren
ardurapean, 2017. urtean egingo dituzten jardueretarako diru laguntzak xedatzea.



Bigarrena. Hitzarmen honen bidez AED elkartearen jarduera arrunta lagunduko du diruz Arrasateko Udalak, *Jokin-Zaitegi beka* eta *Zabar-Berri* egitasmoa.

Hirugarrena. Arrasateko Udalak 2017. urtean 44.345,00 €ko diru laguntza emango dio AEDri.

Laugarrena. Udalak babestutako ekintzen kartel iragarleetan eta, oro har, ekintza horien publizitatean babeslearen izena jarriko du AEDk.

Bosgarrena. Diru laguntzaren %60 ordainduko dio Udalak AEDri, hitzarmen hau sinatu eta berchala. Gainerakoa, urteko memoria aurkeztu ondoren.


Seigarrena. Hitzarmen honen klausulak ezin izango dira aldatu edo zabaldu, bi aldeak ados jarri barik. Koordinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Kultura eta Euskara sailetakoz zinegotzi eskuordetuak eta AED elkartearen lehendakariak.

Zazpigarrena. Hitzarmen honen iraunaldia amaituko da Arrasateko udalak aurkeztutako zuriaketaren ondorengo ebazpena hartzen duenean.

Zortzigarrena: Alderdiak ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Bederatzigarrena. Aurtengo ekintzen azalpen-memoria aurkeztuko du AEDk datorren 2018ko urtarrilaren 15a baino lehen, diru laguntza xede duten ekintzena eta elkarteak egindako ekintza guztiena; eta, horrekin batera, lortu dituen emaitzen balorazioa. Era berean, elkartearen finantza egoerak (egocaren balantzea eta galera eta irabazien kontua) aurkeztuko ditu AEDk 2018ko maiatzaren 31 baino lehen. Kontu agiri horiek dagokion erregistro ofizialean izena behar bezala emanda daukan enpresa eskudun batek ikuskaturik egon behar dute, eta bertan erakundearen jarduera globalaren gastuak eta diru sarrerak aipatu behar dira. Entitate baten jarduera globalean sartzen badira diruz lagundutako programak laguntza izan ez duten programekin, aipatuako finantza egoera ikuskatuak aurkezteaz gain, lagundutako programei dagokien deskargu ekonomikoa aurkeztu beharko da, benetan sortu diren gastuak eta diru sarrerak adierazita, eta baita horiek egozteko erabili diren irizpideak ere. Halaber, diruz lagundutako jardueren azalpen memoria aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, baita lortutako emaitzen balorazioa ere.

Eta horrela jasota geratzeko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bileran direnek.


Enaut Muxika Olasagasti
AEDko lehendakaria



Maria Ubarretxena Cid

